

opusdei.org

**Nafarroako
Unibertsitateak
modako mundurako
kode deontologiko
bat prestatu du,
aurtengo Pazko
Esna-aldian
bataiatutako ‘top
model’ baten
laguntzarekin**

Miss Gipuzkoa 2000: zenbat eta
on gehiago egin lagun hurkoari,
orduan eta on gehiago jaso nik
ere

(Veritas)

Raquel Balenciak 23 urte ditu;
Zuzenbideko laugarren urtea ikasten
ari da eta modelo bezala lan egiten
du. 2000 urtean Miss Gipuzkoa izan
zen, eta 2003an Beiruten Nazioarteko
Top Model titulua eskuratu zuen.
Berak idatzitako Modako Kode
deontologikoa Madrileko Liburu
Azokan aurkeztu berri da, eta
irailean dendetan salgai izango da.

Bere lanbidearekin zerikusirik ez
duen arrazoi batengatik atera zen
egunkarietan: 2005eko Pazko Esna-
aldian bataiatua izan zen, Eliza
Katolikoaren baitan eskubide osoz
sartzen zela. Juan Maria Uriarte,
Donostiako gotzaina, izan zen
bataiatu zuena, arabiar jatorria duen
beste hiritar batekin batera. Bere

liburuaz, bere lanaz eta bere fedear hitz egiten du ‘top model’ honek elkarriketan.

Nola bururatu zitzaizun Modako Kode deontologikoa bat idaztea?

Nafarroako Unibertsitatean protokoloa ikasten ari nintzela, bertako kapilauak, jakinik Zuzenbideko ikasle nintzela eta modako munduan nengibela, proposatu zidan gai honi buruzko lan bat elkarlanean egitea. Berak prestatu zituen elkarriketak eta nik, berriz, Kodea.

Zein dira Modako Kode horren oinarriak?

Modako mundua oso azalekoa da, hutsala. Horregatik, niri okerrak iruditzen zaizkidan eta beste batzuei kaltegarri zaizkien aldeak eta jokaerak abiapuntu harturik, etika eta oinarri batzuk erabili nahi izan ditut -ez dakit ontasunezkoak diren,

baina bai lagun hurkoarekiko
errespetuzkoak- modako munduko
akatsak zuzendu asmoz.

Hasieran miss bat edo mister bat zer
den azaltzen dut; gero harremanen
oinarriak aztertzen ditut,
lankideekikoak eta lanbide honetako
beste pertsonekin izaten direnak ere
–ordezkariak, kontratuak egiten
dituztenak, eta abar–; eta eskubide
eta betebeharren atal bat ere ipini
dut, bakoitzak zer ekarpen egin
dezakeen aztertzekeo.

**Inspirazio kristaua duen lana al
da?**

Ez dakit; behintzat, neure
sinesmenaz arduratzen ari nintzen
aldi berean landu nuen.

**Zergatik ez zintuzten bataiatu
txikitan?**

Nire gurasoen erabakia izan zen,
erlijio aukera oso pertsonala dela

uste zuten eta. Nire anaia eta biok
jaio ginenean itxarotea erabaki
zuten, helduak ginen arte, geurez
erabaki genezan.

Beraiek katolikoak dira, bataiatuak
eta Sendotza hartuak; eta nire erlijio
aukerak behar duen balio izan zezan
nahi zuten, ez kanpotik ezarrita eta
nik hausnartu gabea bezala.

Hartutako erabakia, gainera, ez zen
oso ondo onartua gure familian,
batez ere amonengan, nire bataioko
eguna berebiziko pozez bizi zuten
arren.

Bataiatzeko erabakia hartu arteko urratsak nola izan ziren?

Zeure buruari galdera asko egiten
dionun bizitzako urte horietan izan
zen nire hasiera modako munduan.
Zintzoa izatea zen nire kezka
nagusia. Eta jabetu egin nintzen Eliza
Katolikoaren baloreak zirela bizitza
ulertzeko dudan moduarekin bat
egiten zutenak.

Jarraitzen nuen araua zera zen: zenbat eta on gehiago egin lagun hurkoari, orduan eta on gehiago jaso nik ere. Garai hartan, Nafarroako Unibertsitatean, protokolo ikastaro batzuk egin nituen, eta han, Rafael Hernandez jn. kapilauarekin liburuaren egitasmoan lan egin ondoren, bataiatzeko asmoa nuela agertu nion.

Beraz, zure bidea Opus Deiren baitan egin duzu?

Ez, Nafarroako Unibertsitatetik gertu egin dut. Rafael jn. Opus Deiko apaiza da, baina zerbait ona izan badu eta nire konfiantza osoa irabazi zuena, nirekiko errespetua izan da; inoiz ez dit Opus Dein sartzeko aipamenik egin, ezta antzeko zerbait ere; oso neutro jokatu du. Asko lagundu zidan lehen urratsetan, irakurtzeko liburuak emanaz eta kristau ikasbidearen hasi-masiak erakutsiz; baina Donostiako nire

parrokian ere hartu nuen katekesia,
San Bizenteko parrokoarekin.
Beraiek dira prestatzen lagundu
didatenak.

**Seme-alabarik izaten baduzu, zure
gurasoek erabaki zuten aukera
bera hartuko al duzu?**

Nik uste dut nire senarrarekin hitz
egin beharko dudala, izaten
dudanean; orain aitortu dezakedana
da hartutako erabakiaz oso pozik
nagoela. Garrantzi handiago ematen
diodala nabaritzen dut, txikitan
bataiatu zuten jenderik gehienak
baino; erlijiokoa ez da asko agertzen
beren bizitzetan, nirea bezalako
edadera iristen direnean.

**Zer da gehien erakarri zaituena
Jesusen eta Elizaren Mezutik?**

Jesusen Mezutik, batez ere bere hitz
guztietan agertzen duen ontasuna.
Eta Elizarenetik, besteei bide on bat
erakutsi nahi izatea.

Zer mezu bidali nahi zenieke elkarrizketa hau irakurtzen dutenei?

Ontzat emango nuke, baliagarri gertatuko balitzaio jende askori bizitzan aukera edo bide askotxo dagoela jabetzeko, eta ondo hausnartuta hartu beharra dagoela norberarena.

“Belleza, Moda excelencia” liburuaren aurkezpena urriaren 5ean izango da, Madrileko Casa del Libron, Gran Via 29, 7.00etan; Bertan izango dira Raquel Balencia eta Alfonso Ussia, beste batzuen artean. Biharamunean, Zaragozan aurkeztua izango da, Corte Inglesko Aula del libron.

unibertsitateak-modako-mundurako-
kode-deontologiko-bat-prestatu-du-
aurtengo-pazko-esna-aldian-
bataiatutako-top-model-baten-
laguntzarekin/ (2026 Mar 11)